

OSASUN SISTEMA PUBLIKOAN ENPLEGUAREN ALDE

Euskal Herrian, zerbitzu publikoen kontrako erasoak ez da ezer berririk, publikoa pribatizatzearen bitartez negozio egin nahi duten sistema ekonomikoaren eta kudeatzaile politikoen ondorioa baizik.

Osakidetza eta Osasunbidean ere hala izan da. PNV zein PSE-PSN eta UPN aurkitzen dira pribatizazio prozesu hauen atzean. Hau guztia, ondorio larriekin zeren eta osasuna negozio bihurtzeaz ari baikara. Azken urteotako murrizketen lasterketa zoro honetan, enplegua eta kontratazioa kolpatuenak izan dira.

LABen ustez, euskal jendartearen oinarriko eskubideak asebetetze aldera, Euskal Herrian zerbitzu publikoen sistema indartsu berri baten bidean urratsak eman nahi baditugu, osasun sistema publikoa sendotu eta garatu beharreko ezinbesteko elementua da. Osakidetza eta Osasunbideak kalitatezko enplegu publikoa sortu behar dute osasun arreta publikoa, kalitatezko eta euskalduna izango bada. Horra hor honako Dekalogoak.

HAMAR URRATS OSASUN SISTEMA PUBLIKOAN ENPLEGUAREN ALDE

1. 35 ORDUKO LANALDIARI EUTSI

2. ENPLEGU PLANA ETA PLANTILA ESTRUKTURALA HANDITU. Osakidetzak, bai asistentzi eskaeraren areagotze eta aldaketak aurreikusiz, eta baita ere populazioaren aldaketak eta herritarren osasun beharrak kontuan hartuta zerbitzu-zorria handituz, bost urteko plana gauzatuko du lan zama aztertuz eta langile kopuru estrukturalak handituz.

3. LANPOSTU ESTRUKTURALAK FINKATU lanaren behin-behinekotasun tasa altua saihestuz eta langileei kalitatezko eta lan egonkorra eskainiz, urtero geroagoko kontratazio zerrenda eta EPEetako mugagabeko balio edukiko duten emaitzak kategori guztietako EPEak deituz.

4. OSASUNGINTZA PRIBATUAREKIKO KONTZERTUEI AMAIERA ETA PRIBATIZAZIOEN GELDIARAZTEA ETA PUBLIKORA ITZULI. Bost urteko epean, osasungintza pribatuekin dauden kontzertuekin progresiboki bukatzeko lan-plangintza bat garatuko da. Itxaron zerrenden kasuan, beren kudeaketa publikoa bermatzeko kontratazio planak gauzatuko dira. Osakidetzak zerbitzu pribatizatutako guztien berpublikazioarekin hasiko du dagokion zerbitzu erakundearen kudeaketa bertaratzeko. Ez da zerbitzu gehiagorik pribatizatuko.

5. BAKANTE, ORDEZKAPEN ETA LAN-BIZITZA ETA FAMILIA-BIZITZA UZTARTZEKO NEURRIENGATIK KONTRATAZIO OSOA. Osakidetzak bakante begetatibo, gaixoaldi baja, opor, librantza, baimen, lizentzi, eszedentzi eta jardunaldi murrizketen %100 ordezkapenak kontratatuko ditu, zerbitzu guztietan eta urteko kartelera osoan.

6. TXANDAK. Asistentzi kudeaketa hobetu daiteken zerbitzu guztien goiz eta arratsalde irekitzea (ebakuntza-gelak, diagnosi azterketak, kontsulta espezializatuak...). Kategori guztietan gardien lan sistemaren ordezkari lan-txandak sistema ezarri.

7. AUTOKONZERTAZIOEKIN BUKATU. Peonadei amaiera eman, sistema arruntak bere gainean hartuz antolaketa eta teknikoki egokituz.



8. FUNTZIOAK ZEHAZTU ETA KATEGORI DESBERDINETAN ENPLEGUA SORTU. Dekretu bat egingo da, non kategoriak egonkortzeko eta osasun lan-taldeen lana sustatzeko, funtzioak kategoriaz kategoria zehaztuko diren, eta era berean C, D eta E kategorien gutxitzeko joera aldatu. Funtzioen banaketa okerrak lan-taldeen lana desorekatzera eta funtzionamendu kostuak garestitu egin ditu.

9. ERRELEBO KONTRATUA ETA PLANTILA BERRITZEKO PLANA LANGILE GUZTIEN JUBILAZIOAK ERRAZTEKO. Errelebo kontratu, borondatezko baja sustatuak eta 65urtetik aurrera lana egitera debekuaren bidez plantila gazteagotzeko plan bat jarriko da martxan.

10. HEZKUNTZA ESKAINTZA HANDITU ETA ESKAERA EGON ARREN PERTSONAL FALTAGATIK BETETZEN EZ DIREN ESPEZIALIDADEKO “NUMERUS CLAUSUS” KENDU: ginekologoak, pediatrak...

11. Langile guztiontzat OSASUN SISTEMA INTEGRALA aldarrikatzen dugu, non gertakizun arruntak zein laneko gertakizunak, osasun sistema publikoak bere gain hartuko dituen. Egun, laneko kontingentziak enpresa pribatuen esku, hau da, mutuen esku daude. Mutuek irizpide ekonomikoei erantzuten diete eta ez osasun irizpideei, eta hori ez da inondik ere onargarria. Aldaketa honek enplegu publiko sortuko luke.



EMPLEO EN EL SISTEMA SANITARIO PÚBLICO

En Euskal Herria, el ataque contra los servicios públicos, no es nada nuevo, sino una consecuencia lógica de los gestores políticos y del sistema que pretenden hacer negocio de lo público a través de la privatización.

También es así en Osakidetza y en Osasunbidea. Tanto el PNV como el PSE-PSN y UPN llevan mucho tiempo tras las políticas de privatización. Todo ello, con consecuencias muy graves porque estamos hablando nada más y nada menos que de hacer negocio con la salud. Durante estos años de recortes sin sentido, los principales perjudicados han sido el empleo y la contratación.

Pensamos que si queremos avanzar hacia un nuevo modelo de servicios públicos para Euskal Herria, el sistema de salud pública es uno de los pilares fundamentales a fortalecer y desarrollar, todo ello con el objetivo de garantizar los derechos y necesidades de la sociedad vasca. Osakidetza y Osasunbidea, si queremos que sean un servicio público, de calidad y que funcione en euskera, deben estar dotados de un nivel de empleo público suficiente para ello, cosa que no sucede en la actualidad. Esta es la función de esta propuesta de decálogo.

DIEZ PROPUESTAS PARA EL EMPLEO EN EL SISTEMA SANITARIO PÚBLICO

1. MANTENER LA JORNADA DE LAS 35 HORAS

2. UN PLAN DE EMPLEO Y AUMENTO DE LA PLANTILLA ESTRUCTURAL . Realización de un plan quinquenal en función de la previsión del incremento de la demanda asistencial, de las transformaciones de la población, con incremento de la cartera de servicios en función de las necesidades reales, y incrementando los puestos estructurales en función de ello.

3. ESTABLECER LOS PUESTOS DE TRABAJO ESTRUCTURALES superando la alta tasa de eventualidad y ofertando a la plantilla empleo estable y de calidad, convocando de manera anual OPEs para todas las categorías, manteniendo el valor de las notas obtenidas.

4. FINALIZACIÓN DE LOS CONCIERTOS CON LA RED SANITARIA PRIVADA Y DE LA PRIVATIZACIÓN, YE IMPULSO DE LA REVERSIÓN. Desarrollar en el plazo de cinco años un proceso planificado para de manera progresiva ir dando por finiquitados los conciertos con la sanidad privada. Relizar planes de contratación para garantizar una gestión pública para el caso de las listas de espera. Abordar un plan de república de los servicios privatizados para du reversión al departamento correspondiente. No más privatizaciones.

5. CONTRATACIONES A JORNADA COMPLETA PARA COBERTURA DE VACANTES, SUSTITUCIONES Y MEDIDAS DE CONCILIACIÓN. Contratación de sustituciones al 100% de vacantes vegetativas, bajas por enfermedad, vacaciones, jornadas de libranza, permisos, licencias, excedencias y reducciones de jornada en todos los servicios y para toda la cartelera anual.

6. TURNOS. Apertura mañana y tarde de todos los servicios en los que se pueda mejorar la asistencia (salas de operaciones, diagnósticos, consultas especializadas, ...). Establecer para ello el sistema de turnos en lugar del de guardias para todas las categorías.

7. TERMINAR CON LA AUTOCONCERTACIÓN. Finalizar las peonadas derivando esos trabajos al sistema



corriente adoptando para ello las medidas organizativas y técnicas necesarias.

8. DEFINIR LAS FUNCIONES Y CREAR EMPLEO EN TODAS LAS CATEGORÍAS. Elaboración de un decreto a través del cual se definirán las funciones de todas las categorías, con el objetivo de estabilizar las categorías e impulsar el trabajo eficaz de los equipos sanitarios, y con el que se acabará con la tendencia a reducir las categorías C, D y E. Un reparto inadecuado de las funciones genera desequilibrios en el trabajo en equipo, y encarece los costes.

9. CONTRATO DE RELEVO Y PLAN DE RENOVACIÓN DE LA PLANTILLA PARA FACILITAR LAS JUVILACIONES. Poner en marcha un plan para rejuvenecer la plantilla fomentando las bajas voluntarias, y negando la posibilidad de seguir en activo a partir de los 65 años.

10. AUMENTAR LA OFERTA FORMATIVA, Y ELIMINACIÓN DE LOS “NUMERUS CLAUSUS” PARA LAS ESPECIALIDADES EN LAS QUE A PESAR DE HABER DEMANDA HAY FALTA DE PERSONAL: ginecología, pediatría...

11. Reivindamos UN SISTEMA DE SALUD PÚBLICO INTEGRAL para toda la clase trabajadora, un sistema donde todas las contingencias, comunes o laborales, sean atendidas por el sistema público. Hoy por hoy, las contingencias profesionales recaen en las mutuas que son empresas privadas. Las mutuas se mueven por intereses económicos y no sanitarios, y esto es inaceptable. Con esta medida se crearía mucho empleo público.

